

Euskal HERRIA  
Pays Basque  
Basque  
Country



Joxean Fernández

# Euskal zinema

Cinéma Basque ■ Basque Cinema



etxe  
pare  
EUSKALINSTITUTUA  
INSTITUTOVASCO  
BASQUEINSTITUTE





Joxean Fernández

Euskal zinema

Cinéma Basque ■ Basque Cinema

EUSKAL HERRIA  
PAYS BASQUE  
BASQUE COUNTRY

## Euskal Kultura Saila

Collection Culture Basque / Basque Culture Series

---

- 1 Euskararen historia laburra / Brève histoire de la langue basque / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / La littérature basque du XX<sup>e</sup> siècle / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / La musique classique basque / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La chanson basque: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 Estanpa bilduma / Collection d'estampes / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cinéma basque / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Architecture et design / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danse basque / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / L'improvisation / *Bertsolaritza*
- 10 Tradizioak / Les traditions / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / La cuisine basque / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Le théâtre basque / Basque Theater

### Euskal Kultura Sailaren editorea

Éditrice de la Collection Culture Basque

Basque Culture Series Editor:

Mari Jose Olaziregi

© Testua / Texte / Text:

Joxean Fernández

© Translation into English:

Cameron Watson

© Traduction en français:

Kattalin Totorika

© Diseinua / Conception / Design:

Tiktak multimedia

ISBN: 978-84-616-7010-9



Frantseseko bertsioa Euskal Kultur Erakundeak finantzatu du

La version française a été financée par l'Institut Culturel Basque

The French version has been funded by the Basque Cultural Institute

### Etxepare Euskal Institutua

Institut Basque Etxepare / Etxepare Basque Institute

Prim 7, 1

E- 20006 Donostia / San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

# Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, va de par le monde

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: “**Euskara, jalgi hadi mundura**”.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzailerak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, lorsque fut publié le premier livre en euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, son auteur, Bernat Etxepare, exprima le vœu suivant: «**Euskara, jalgi hadi mundura**» (Euskara, va de par le monde).

L’Institut Basque Etxepare doit non seulement son nom à ce premier auteur basque, mais il fait également sien son vœu, en se donnant pour mission la promotion et la diffusion de la langue et de la culture basques à travers le monde.

Notre tâche consiste, d’une part, à promouvoir la connaissance de notre langue et à encourager son apprentissage dans la sphère académique. D’autre part, nous nous efforçons de faire découvrir, sur le plan international, les expressions artistiques de nos créateurs, qu’ils soient artistes plasticiens, musiciens, danseurs, écrivains, cinéastes, ou encore acteurs.

L’une de nos premières tâches, au cours de ce processus de diffusion à travers le monde de notre langue et de notre culture, a consisté à créer cette collection, dans le but de fournir des informations sur notre langue, l’euskara, ainsi que sur toutes les disciplines artistiques et culturelles qui constituent la richesse de notre culture.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute’s objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

## Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria  
Directrice de l’Institut Basque Etxepare  
Director of the Etxepare Basque Institute



# Aurkibidea

## Sommaire ■ Index

<b>Sarrera</b> Introduction Introduction	6
<b>Zinemaren jatorria Euskal Herrian</b> Les origines du cinéma au Pays Basque The Origins of Cinema in the Basque Country	10
<b>Aro mututik Gerra Zibilera</b> De l'époque du muet à la Guerre Civile From the Silent Era to the Spanish Civil War	16
<b>Frankismoaren basamortutik itzartze-aldira</b> Du désert du franquisme au réveil From the Desert of the Franco Regime to the Awakenings	42
<b>Trantsizioa: film baino eztabaida gehiago</b> La Transition: plus de débats que de films The Transition: More Debates than Films	62
<b>80ko hamarkadako euskal zinema</b> Le cinéma basque des années 80 Basque Cinema in the 1980s	72
<b>90eko hamarkadatik gaur egunera</b> Des années 90 à nos jours From the 1990s to the Present	82
<b>Ondorioak</b> Conclusion Conclusions	108
<b>Eranskina: Euskal zinemagileen film ikusien zerrenda</b> Annexe: Liste des films les plus populaires tournés par des réalisateurs basques Annex: List of the Most Popular Films by Basque Filmmakers	112
<b>Argazkiak / Photographies / Photographs</b>	113
<b>Bibliografia / Bibliographie / Bibliography</b>	114
Joxean Fernández	116

---

Joxean Fernández

# Sarrera

Introduction ■ Introduction

---

Zinemak Euskal Herrian izan duen historiara hurbiltze guztiz sintetikoa da hau, eta zinemagilerik garrantzitsuenei erreparatzen die, euskal zinemak hastapenetatik gaur egun arte egin duen mende oso batetik gorako ibilbidean zehar. Ez du lan honek gaiari buruzko analisi kritikoa edo ikerketa berritzailea izateko asmorik; hori etorkizunean espezialistek –Lopez Etxebarrietak, Unsainek, Zunzunegik, De Pablok, Roldan Larretak eta bestek– egin beharko dute, hau baino askoz ere obra zabalagoen eta zehatzagoen bidez. Beraz, lan hau abiapuntua baino ez denez, ez litzateke harritzekoa askok izen eta izenburu bat baino gehiagoren falta sumatzea, hemen aipatutakoak bezain garrantzitsuak direla iritzita; eta, agian, justifikaziorik ere izango du horrek, baina gogora ekarri beharra dago Etxepare Institutuak argitaratutako bilduma honentzat aurreikusi den nahitaezko luzerak omisio mingarriak eskatzen dituela, bestela ezinezkoa bailitzateke adostutakoa betetzea. Ezer baino lehen, barkamena eskatzen dut, beraz.

*Travelling* azkar honek, lehen plano luzeegirik izango ez duena ezinbestez, euskal zinemaren hastapenak zeharkatuko ditu, aro mutua bukatu zen arte; Gerra Zibilaren hasieraraino eramango gaitu gero, eta horren ondorioz egindako euskal propaganda zinematografikoaren ahalegina erakutsiko digu; segidan, errepresio frankistak eragindako basamortutik igaro eta diktaduraren azken agonia-garaiko itzartze ausartan barneratuko gara, eta euskal zinemaren izaerari buruzko trantsizio-garaiko eztabaidak erreparasatuko ditugu. Azkenik, 90eko hamarkadako sortzaileen zerrenda aztertuko dugu, gaur egungo errealitate anitzera iritsi arte.

Euskal zinemaz ari garenean, ikertu beharreko korpusa definitzea da esku-liburuetan ageri den lehen arazoetako bat. Franco diktadorea hil ondoren, euskal intelektual asko larriki kezkatu ziren euskal zinema zer zen eta zer ez zen argitzeko sortutako polemikarekin. Une hartatik aurrera euskal zinemari buruzko



Ce travail est une approche extrêmement synthétique de l'histoire du cinéma au Pays Basque, centrée sur les cinéastes qui ont marqué cette histoire depuis ses origines, et tout au long d'un parcours de plus d'un siècle. Il ne s'agit ni d'une analyse critique, ni d'une recherche innovante sur ce sujet, mais plutôt d'un point de départ qui permettra peut-être au lecteur, par la suite, d'approfondir ses connaissances par le biais d'ouvrages plus ambitieux et détaillés, notamment ceux de spécialistes comme López Echevarrieta, Unsain, Zunzunegui, De Pablo, Roldán Larreta, etc. Ainsi, il ne serait guère surprenant que de nombreux lecteurs s'étonnent, avec raison, de l'absence de certains noms ou de certains titres de films, objectant qu'ils sont tout aussi importants que ceux mentionnés ici. Toutefois, il faut rappeler que le format imposé par cette collection, publiée par l'Institut Basque Etxepare, exige de douloureuses omissions, sans lesquelles il eut été impossible de respecter le contrat initial. Je m'en excuse par avance.

Grâce à ce *travelling* rapide qui, fatalement, n'offrira guère de premiers plans trop appuyés, nous balayerons la période allant des origines du cinéma au Pays Basque jusqu'à la fin de l'époque du muet; nous reviendrons sur l'éclatement de la Guerre Civile et l'effort de la propagande cinématographique basque qui s'en est suivi; nous parcourrons la traversée du désert causée par la répression franquiste jusqu'au réveil audacieux correspondant à la période d'agonie de la dictature; et nous examinerons les débats autour de la nature du cinéma basque au moment de la Transition vers la démocratie, ainsi que l'émergence déterminante de l'autonomie. Enfin, nous détaillerons la liste des créateurs des années 90, pour parvenir à la réalité diverse de la situation actuelle. S'agissant du cinéma basque, l'une des principales préoccupations des ouvrages traitant de ce sujet porte sur la définition du corpus à étudier. Après la mort du dictateur Franco, de nombreux intellectuels

This is a highly concise overview of the history of the cinema in the Basque Country, focusing on its main filmmakers throughout more than a century since its first steps. It does not attempt to be a critical analysis or offer groundbreaking research on the topic, but is instead a point of departure that might allow readers to extend their understanding at a later date through more ambitious and detailed studies than the present work: specialists such as López Echevarrieta, Unsain, Zunzunegui, De Pablo, Roldán Larreta, and so on. Therefore, many readers might justifiably miss names and titles they consider just as essential as those mentioned. However, one should bear in mind that the obligatory length of the work for this collection published by the Etxepare Basque Institute requires a series of regrettable omissions without which it would have been impossible to respect the limits of what had been originally agreed to. My apologies in advance as regards this.

This swift tracking shot which, logically, mostly lacks a general foreground, will journey from the origins of cinema in the Basque Country to the end of the silent era; the outbreak of the Spanish Civil War and the accompanying efforts of Basque cinematographic propaganda; the wasteland resulting from the repression of the Franco regime through to the bold awakenings of the dying moments of the dictatorship; the debates surrounding the nature of Basque cinema during the transition to democracy; the determined emergence of the autonomous era; and, finally, it will likewise take in the extensive list of artists during the 1990s before arriving at the very diverse reality of the present. The preoccupation with defining the body of work to be studied when considering Basque cinema constitutes one of the first concerns of history texts on the topic. The controversy raised about what was or was not Basque cinema was indeed an overriding preoccupation for a good part of the Basque intellectual community after the death of the dictator Franco. It was at that moment that a debate emerged with multiple angles –politics, aesthetics, language– and, of course,



*Tasio* (Montxo Armendariz)

eztabaida bizia sortu zen, eta hainbat alderditatik (politika, estetika, hizkuntza) eta, jakina, oso ikuspuntu desberdinetatik heltzen zitzaion gaiari. Arretaz aztertuko ditugu kontu horiek, zinema sortzen duen gizartearen eta zinema beraren arteko uztartzearen isla eredugarriak direnez. Hala ere, euskal zinemaren kontzeptua ez da teorikoki aztertuko, horretarako tokirik ez dagoelako. Borondatez onartu dugun eta, batik bat, gure zuzendarien jatorriaren araberakoa den definizio lauso bati jarraiki, euskal zinemagile guztiak sartuko ditugu hemen, baita euren lanak gure esparru geografikotik kanpo ekoiztu eta grabatu badira ere.

Zeregin honetan lagundu didaten pertsonen zerrenda luzea da. Haiei eskerrak eman nahi dizkiet eta testuan akatsen bat agertzekotan, ardura osoa nirea da, ez haiena. Lehenik eta behin, eskerrak Aizpea Goenaga eta Marijose Olaziregiri (Etxepare Institutua), proiektu hau bultzatzeagatik; eskerrak Jose Luis Lopez Linares, Pablo Malo, Asier Altuna,

Josemari Goenaga, Montxo Armendariz, Puy Oria, Enrique Urbizu, Alex de la Iglesia eta Angel Amigori argazkiak uzteagatik, besteak beste; eskerrak Jesus Angulo eta Gonzalo Garcia Chascori testua hobetzeko aholkuak eman eta akatsak zuzentzeagatik; eskerrak Pilar Martinez-Vasseur eta Jose Markezi, beti bezala; eskerrak Euskadiko Filmategia (Maria Lopetegiri bereziki) eta Zinemaldiko (Ana Redondo eta Lucia Olacireguri bereziki) lankideei. Eskerrak Mélanie Doréri.

basques furent très préoccupés par la polémique née autour de ce que devait être ou ne pas être le cinéma basque. Dès lors, eut lieu un vif débat, abordé sous différents angles –politique, esthétique, linguistique–, et alimenté par différents points de vue sur un cinéma qui, d’une certaine manière, était tout juste naissant. Nous examinerons avec soin ces éléments dans la mesure où ils sont le reflet fidèle de l’imbrication entre le cinéma lui-même et la société qui le produit. Cependant, il ne sera pas proposé ici d’analyse théorique du concept de cinéma basque, faute d’espace. Dans une acception volontairement évasive, davantage basée sur les origines de nos réalisateurs que sur d’autres critères, nous inclurons ici tous les cinéastes basques, même si leurs travaux ont été produits et filmés à l’extérieur de notre cadre géographique.

La liste des personnes qui m’ont aidé dans cette tâche est très longue. Je ne peux que leur exprimer ma très sincère gratitude et préciser que ces personnes n’ont évidemment aucune responsabilité dans les erreurs que le texte est susceptible de contenir. En tout premier lieu, mes remerciements à Aizpea Goenaga et Marijo Olaziregi (Institut Etxepare) pour avoir impulsé le projet; à José Luis López Linares, Pablo Malo, Asier Altuna, Josemari Goenaga, Montxo Armendariz, Puy Oria, Enrique Urbizu, Álex de la Iglesia et Ángel Amigo, notamment pour m’avoir cédé leurs photographies; à Jesús Angulo et Gonzalo García Chasco pour leur contribution à l’amélioration du texte et pour les corrections apportées; à Pilar Martínez-Vasseur et José Márquez, comme toujours; à la Cinémathèque d’Euskadi (tout particulièrement María Lopetegui) et à toute l’équipe de Zinemaldi (tout particulièrement Ana Redondo et Lucía Olaciregui). Merci, enfin, à Mélanie Doré.

very different points of view about a cinema which, to some extent, was just being born. I will therefore approach this controversy when it emerged, given that it is a good reflection of the overlapping of a cinema and the society which makes it. However, I will not address the concept of Basque cinema theoretically for reasons of space. In an admittedly general sense, based more on the origins of our directors than other aspects, I will here include all Basque filmmakers, even if their works have been produced and filmed outside our geographical framework.

The list of people who have helped me in different aspects is long. I can only express my sincerest of thanks to them and they of course have no responsibility for any errors the text might have. In first place, to Aizpea Goenaga and Mari Jose Olaziregi (Etxepare Institute) for promoting the project; to José Luis López Linares, Pablo Malo, Asier Altuna, Josemari Goenaga, Montxo Armendariz, Puy Oria, Enrique Urbizu, Álex de la Iglesia and Ángel Amigo for, amongst other things, allowing me to use their photographs; to Jesús Angulo and Gonzalo García Chasco for having suggested corrections and improvements to the text; to Pilar Martínez-Vasseur and José Márquez, as always; to all my colleagues at the Basque Film Library (especially to María Lopetegui) and Zinemaldi (especially to Ana Redondo and Lucía Olaciregui). To Mélanie Doré.

---

# Zinemaren jatorria Euskal Herrian

---

Les origines du cinéma  
au Pays Basque

The Origins of Cinema  
in the Basque Country

XIX. mendearen azken laurdenean ekonomiari, gizaritari eta politikari lotutako aldaketa asko gertatu ziren Euskal Herrian. Errestaurazioaren garaian abiarazitako modernizazio-prozesu orokorrak hiru erantzun politiko jaso zituen gizaritean: tradizionalismo karlistaren erreakzioa, langile elkarte sozialistak eta euskal nazionalismoa.<sup>1</sup> 1895ean Sabino Aranaren eskutik Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) sortu zenean, euskal nazionalismoa eta lehendik ezagutzen zen sozialismoa elkarren aurkako korrante bihurtu ziren. Mugimenduok funtsezko eragileak izan ziren, XX. mendearen ia lehenenengo lau hamarkadetan, euskal hiri nagusien bilakaeran. Ludger Mees-en aburuz, euskal nazionalismoa “hiriko behe-burgesiako klase batzuek ezegonkortasun-egoera berriaren aurrean izan zuten erantzun gisa jaio zen, eta laster batu zitzaizkion oligarkia industrialak ekonomikoki eta politikoki baztertuak zituen burgesiako beste talde dirudun batzuk.”<sup>2</sup> Errestaurazio-garaiak bi ezaugarri nagusi izan zituen: Bizkaiak –eta neurri apalagoan Gipuzkoak– izandako garapen industrialak eta, horrekin batera, hazkunde demografikoa (Arabak eta Nafarroak beren horretan jarraitu zuten). Hortaz, modernizazio sozioekonomikoaren eskutik etorri zen euskal nazionalismoaren loraldia, eta garai hartan sortu zen zinema ere, 1895. urtean. Urte hartako abenduaren 28an, Lumière anaiek euren asmakuntza harrigarria aurkeztu zuten Pariseko Kaputxinoen bulebarreko *Indien* aretoan. Bizkor zabaldu zen asmakuntza Europa osoan. Euskal herrialdeetan egindako proiektio publikoen lehen albisteak

<sup>1</sup> Eduardo González Calleja, “Violencia y Política en el País Vasco durante la Restauración y la Segunda República”, lan honetan: J. A. Echaniz eta J. L. Granja (zuzendariak), *Gernika y la Guerra Civil. Symposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika (1997)*, Gernikazarra Historia Taldea, Gernika-Lumo, 1998, 25. orrialdea.

<sup>2</sup> Ludger Mees, *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1992, 341. orrialdea.

*Edurne, modista bilbaina*  
(Telesforo Gil)



Pour le Pays Basque, le dernier quart du XIX<sup>e</sup> siècle fut marqué par de nombreuses évolutions sur le plan économique, social et politique. Le processus global de modernisation entamé durant la période de la Restauration suscita trois réponses politiques dans la société: la réaction du traditionnalisme carliste, le mouvement associatif ouvrier socialiste et le nationalisme basque.<sup>1</sup> Avec la naissance, en 1895, du Parti Nationaliste Basque (Partido Nacionalista Vasco, PNV), sous la férule de Sabino Arana, le nationalisme basque et le socialisme, qui lui était antérieur, se transformèrent en deux courants politiques opposés. Ces deux mouvements furent des acteurs déterminants dans l'évolution que connurent les principales villes basques au cours des quatre premières décennies du XX<sup>e</sup> siècle. Selon Ludger Mees, le nationalisme basque vit le jour «en tant que réponse des classes petites-bourgeoises urbaines à la nouvelle situation d'instabilité, classes auxquelles s'adjoignirent certaines couches de la bourgeoisie aisée marginalisées, sur un plan économique et politique, par l'oligarchie industrielle.»<sup>2</sup> En effet, le développement industriel et la croissance démographique incarnés par la Biscaye et, dans une moindre mesure, le Gipuzkoa (tandis que l'Alava et la Navarre continuaient à stagner) caractérisèrent nettement la période de la Restauration. La naissance du nationalisme basque, consécutive à la modernisation socio-économique, coïncida avec l'apparition du cinéma, en 1895. Le 28 décembre de cette année-là, les frères Lumière présentèrent, dans le cadre du Salon

The Basque Country was shaped by countless economic, social and political changes during the final quarter of the nineteenth century. The widespread process of modernisation that took place during the Spanish Restoration period (1876-1923) resulted in three mass political responses: the reaction of traditionalist Carlism, socialist workers' associationism and Basque nationalism.<sup>1</sup> With the emergence of the Basque Nationalist Party (Partido Nacionalista Vasco, PNV) in 1895 under the guidance of Sabino Arana, Basque nationalism and a pre-existent socialism would become, moreover, the two rival political tendencies without which it is impossible to explain almost the first four decades of the twentieth century in the principal Basque cities. According to Ludger Mees, Basque nationalism emerged "as a response of some petty bourgeois urban classes to a new situation of instability, who were joined by elements of the well-to-do bourgeoisie marginalised economically and politically by the industrial oligarchy."<sup>2</sup> It is certainly true that industrial development and demographic growth, principally in Bizkaia and somewhat less so in Gipuzkoa (Araba and Navarre remained stagnant), characterised the Restoration period. Socioeconomic modernisation coincided, then, with the birth of Basque nationalism

<sup>1</sup> Eduardo González Calleja, «Violencia y Política en el País Vasco durante la Restauración y la Segunda República», dans *Gernika y la Guerra Civil. Symposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika (1997)*, Gernikazarra Historia Taldea, sous la direction de J. A. Echaniz et J. L. Granja, Gernika-Lumo, 1998, p. 25.

<sup>2</sup> Ludger Mees, *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Fondation Sabino Arana, Bilbao, 1992, p. 341.

<sup>1</sup> Eduardo González Calleja, «Violencia y Política en el País Vasco durante la Restauración y la Segunda República», in J. A. Echaniz and J. L. Granja, eds., *Gernika y la Guerra Civil. Symposium: 60 aniversario del bombardeo de Gernika (1997)* (Gernika-Lumo: Gernikazarra Historia Taldea, 1998), p. 25.

<sup>2</sup> Ludger Mees, *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)* (Bilbo: Fundación Sabino Arana, 1992), p. 341.

Zinematografoak Donostian piztu zuen zirrara Bilbora hedatu zen, Jimeno anaiak Arriaga Antzokian proiektzioak egiten hasi baitziren. Iruñeko ikusleek urriaren 24ra arte itxaron behar izan zuten eta Gasteizkoek azaroaren 1era arte.

Biarritzetik jaso ziren, zapzi hilabete geroago. Ikusentzuleak txudituta geratu ziren, eta asmakuntzak aukera apartak eskaintzen zituela argi ikusi zen hasiera-hasieratik.

Lehen emanaldi hartan proiektatu zen filmetako bat *Llegada de la familia real española de veraneo a San Sebastián* izan omen zitekeen, Alexandre Promio operadoreak Lumière anaien izenean zinematografoa aurkezteko Madrilera egindako bidaiatik itzultzean, Donostian grabatu zuena, antza. Euskal zinemaren historialari nagusiek guztiz gezurtatu dute informazio hori, ordea. Alabaina, 1896ko abuztuaren 6an Donostian egindako proiektzioak jasota geratu dira.<sup>3</sup> Horixe litzateke, beraz, Bidasoaren hegoaldean egindako lehen proiektzio publikoaren data. Handik bi egunera, zinematografoak Donostian piztu zuen zirrara Bilbora hedatu zen, Jimeno anaiak Arriaga Antzokian proiektzioak egiten hasi baitziren. Iruñeko ikusleek urriaren 24ra arte itxaron behar izan zuten<sup>4</sup> eta Gasteizkoek azaroaren 1era arte, Rousby-ren animatografoa abuzturako iragarri bazen ere.

Jon Letamendik eta Jean Claude Seguin-ek alor horretan egindako ikerketak oso garrantzitsuak izan dira, eta aurkikuntzek frogatu dute oker egotzi zitzaiola zinema espainiarraren jaiotza *Salida de misa de doce en el Pilar de Zaragoza* filmari (1897ko urria).<sup>5</sup> Euren

<sup>3</sup> Cfr. Santiago de Pablo, "País Vasco", *Film-Historia. Una historia por autonomías. Vol. II*, 4 (1998) eta Jon Letamendi eta Jean Claude Seguin "Los orígenes del cine en Euskal Herria" lan honetan: Santiago de Pablo (ed.), *Los cineastas. Historia del cine en Euskal Herria. 1896-1998*, Antso Jakituna Fundazioa, Gasteiz, 1998.

<sup>4</sup> Alberto Cañada, *Llegada e implantación del cinematógrafo en Navarra (1896-1930)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1997, 88. orrialdea.

<sup>5</sup> Jon Letamendi eta Jean-Claude Seguin: *La cuna fantasma del cine español. Salida de misa de doce del Pilar de Zaragoza: la crónica de una mentira fraguada y mantenida desde la historiografía al servicio del poder*, CIMS, Bartzelona, 1998.

Indien du Boulevard des Capucines, à Paris, leur surprenante invention, qui commença rapidement à être diffusée au niveau européen. Les premières projections publiques en terre basque eurent lieu à Biarritz seulement sept mois plus tard. L'impact sur les spectateurs fut considérable, et il fut évident, dès le départ, que cette invention offrait des possibilités extraordinaires.

Parmi les films présentés lors de cette projection figurait probablement le film *Llegada de la familia real española de veraneo a San Sebastián* (Arrivée de la famille royale espagnole en vacances d'été à Donostia-San Sebastián), qui aurait été tourné dans cette ville par l'opérateur Alexandre Promio à son retour de Madrid où il s'était rendu pour présenter, au nom des frères Lumière, le cinématographe. Toutefois, cette information semble avoir été démentie par les principaux historiens du cinéma basque. Il est effectivement fait mention de projections à Donostia-San Sebastián, le 6 août 1896.<sup>3</sup> Il s'agirait de la date de la première projection publique au sud de la Bidassoa. Seulement deux jours après, l'enthousiasme soulevé par le cinématographe à Donostia-San Sebastián s'étendit à la ville de Bilbao où les frères Jimeno avaient commencé les projections au Théâtre Arriaga. Les spectateurs de Pampelune durent attendre jusqu'au 24 octobre,<sup>4</sup> et ceux de Vitoria-Gasteiz jusqu'au 1<sup>er</sup> novembre, même si l'animatographe de Rousby était annoncé pour le mois d'août. Les recherches de Jon Letamendi et Jean-Claude Seguin dans ce domaine ont été capitales et ont remis

and this, in turn, with the birth of film at a global level: 1895. On 28 December that year, the Lumière brothers presented their surprising invention at the Salon Indien on the Boulevard des Capucines in Paris, and soon thereafter it spread throughout Europe. The first public projections on Basque soil took place in Biarritz barely seven months later. The impact on audience members was considerable and, right from the start, people had an inkling of the extraordinary possibilities of the new medium.

One of the films that was apparently part of that first session was *Llegada de la familia real española de veraneo a San Sebastián* (Arrival of the Spanish royal family on its summer holidays in Donostia / San Sebastián), which would have been filmed in this city by the cameraman Alexandre Promio on his return from Madrid, where he had presented the cinematograph in the name of the Lumière brothers. The principal historians of Basque cinema would appear to have completely overlooked this information. There are, however, records of projections in Donostia / San Sebastián for 6 August, 1896.<sup>3</sup> This would, then, constitute the first projection on Basque soil south of the Bidasoa River. Barely two days later, the enthusiasm awakened for the kinematograph in Donostia / San Sebastián extended to Bilbao, where the Jimeno brothers began projections in the Arriaga Theatre. Iruñea-Pamplona would have to wait until 24 October,<sup>4</sup> while Vitoria-Gasteiz had its first screening on 1 November (despite the fact that a screening by the Rousby animatograph projector had been announced for August).

<sup>3</sup> Cf. Santiago de Pablo, «País Vasco», *Film-Historia. Una historia por autonomías*. Vol. 2, 4 (1998), et Jon Letamendi et Jean-Claude Seguin, «Los orígenes del cine en Euskal Herria» chez Santiago de Pablo (éditeur), *Los cineastas. Historia del cine en Euskal Herria. 1896-1998*, Fondation Sancho el Sabio, Vitoria-Gasteiz, 1998.

<sup>4</sup> Alberto Cañada, *Llegada e implantación del cinematógrafo en Navarra (1896-1930)*, Gouvernement de Navarre, Iruña-Pamplona, 1997, p. 88.

<sup>3</sup> Cf. Santiago de Pablo, «País Vasco», *Film-Historia. Una historia por autonomías*, vol. 2 (1998), 4 and Jon Letamendi and Jean Claude Seguin, «Los orígenes del cine en Euskal Herria», in Santiago de Pablo, ed., *Los cineastas. Historia del cine en Euskal Herria. 1896-1998*, (Vitoria-Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 1998).

<sup>4</sup> Alberto Cañada, *Llegada e implantación del cinematógrafo en Navarra (1896-1930)* (Iruña: Gobierno de Navarra, 1997), p. 88.



ustez, Antonio Salinas eta Eduardo de Lucas izan ziren lehenak, urte hartako ekainaren 12a baino lehenago Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazako irudiak grabatu baitzituzten Lumière kamera batekin.<sup>6</sup> Edonola ere, zinema Euskal Herrira heldu zenerako, publiko euskaldunak ongi ezagutzen zuen zinemaren lehen sustatzaileen tradizio garrantzitsua, azoka eta postu ibiltariei esker. Kinetoskopioak 1895ean iritsiak ziren, kinetografo 1896an eta linterna magikoen, dioramen nahiz panoramen ikuskizunak askoz ere lehenago.<sup>7</sup> Ia hamarkada batez, zinemak azoketako ikuskizun gisa iraun zuen Euskal Herrian, eta batetik bestera ibiltzen ziren barraken bidez haren ospea handituz joan zen etengabe. Garesti-garestia ez zenez, langileen interesa piztu zuen zinemak, baina entretenimendu bila ari ziren gizarte klase dirudunagoen jakin-mina ere sustatu zuen. Arte nomada hura laster iritsi zen txoko guztietara, hainbat arriskuri aurre egin behar izan arren. Hiru aipatzen dira: suteak, antzerkizale puristak eta zentsura, batez ere, katolikoa.

<sup>6</sup> Jon Letamendi eta Jean-Claude Seguin: *Los orígenes del cine en Álava y sus pioneros*, Euskal Filmategia, Gasteiz, 1997.

<sup>7</sup> Santos Zunzunegui: *El cine en el País Vasco*, doktoretzatesia, 1985, 52-64 orrialdeak.



en question l'affirmation selon laquelle le cinéma espagnol serait né avec le film *Salida de misa de doce en Pilar de Zaragoza* (Sortie de la messe de midi à la Cathédrale Pilar de Zaragoza (octobre 1897)).<sup>5</sup> Selon eux, Antonio Salinas et Eduardo de Lucas furent les premiers à tourner, avant le 12 juin de cette année-là, des images de la place de la Virgen Blanca, à Vitoria-Gasteiz, à l'aide d'une caméra Lumière.<sup>6</sup> Quoi qu'il en soit, lorsque le cinéma arriva au Pays Basque, le public basque avait déjà une connaissance de ce qu'était la tradition du cinéma, à travers ses précurseurs que l'on pouvait découvrir dans les foires et les baraques ambulantes. Les kinéscopes étaient arrivés en 1895, le kinétographe en 1896, et les spectacles de lanterne magique, de dioramas et de panoramas étaient bien antérieurs.<sup>7</sup> Ainsi, pendant près d'une décennie, le cinéma parvint à survivre au Pays Basque en tant que spectacle de foire, et grâce aux baraques itinérantes qui allaient d'un endroit à un autre, son succès populaire ne cessa de grandir. Les ouvriers y trouvèrent un intérêt car cette distraction était peu coûteuse, mais il suscita également la curiosité des classes plus aisées en quête d'un divertissement destiné à tous les publics, sans distinction. La popularité incontestable de cet art nomade s'étendit rapidement, malgré les obstacles auxquels il était confronté. Parmi les plus souvent cités: les incendies, les puristes du théâtre et la censure (essentiellement celle de l'Église Catholique).

Research in this field by Jon Letamendi and Jean Claude Seguin has been vital and they have even shattered the notion that the birth of Spanish cinema took place with *Salida de misa de doce en el Pilar de Zaragoza* (Exit from twelve o'clock mass in the Pilar Cathedral of Zaragoza, October 1897).<sup>5</sup> In their opinion, prior to this, Antonio Salinas and Eduardo de Lucas had filmed some images of the current Virgen Blanca square in Vitoria-Gasteiz on 12 June that same year with a Lumière camera.<sup>6</sup> Cinema would not, however, have come to the Basque Country without an important tradition established by certain precursors having already become established amongst the Basque public at fairs and travelling stalls. Kinetoscopes had already arrived in 1895 and the Kinetograph in 1896 and these were preceded by magic lantern shows, dioramas and panoramas.<sup>7</sup> And cinema in the Basque Country would survive for almost a decade combined with fairground shows, in travelling stalls that would make this nomad an increasingly popular art. The working classes took an interest in it because it was inexpensive, but it also attracted more well-to-do social classes in search of entertainment that really knew no boundaries amongst the public it was destined for. The undeniably popular nature of cinema developed quickly in spite of the dangers it faced. Three are most commonly cited: fires, theatre purists and censorship (principally that of the Catholic Church).

<sup>5</sup> Jon Letamendi et Jean-Claude Seguin, *La cuna fantasma del cine español. Salida de misa de doce del Pilar de Zaragoza: la crónica de una mentira fraguada y mantenida desde la historiografía al servicio del poder*, CIMS, Barcelona, 1998.

<sup>6</sup> Jon Letamendi et Jean-Claude Seguin, *Los orígenes del cine en Álava y sus pioneros*, Cinémathèque Basque, Vitoria-Gasteiz, 1997.

<sup>7</sup> Santos Zunzunegui, *El cine en el País Vasco*, Thèse de doctorat, 1985, pp. 52-64.

<sup>5</sup> Jon Letamendi and Jean-Claude Seguin, *La cuna fantasma del cine español. Salida de misa de doce del Pilar de Zaragoza: la crónica de una mentira fraguada y mantenida desde la historiografía al servicio del poder* (Barcelona: CIMS, 1998).

<sup>6</sup> Jon Letamendi and Jean-Claude Seguin, *Los orígenes del cine en Álava y sus pioneros*, (Vitoria-Gasteiz: Filmoteca Vasca, 1997).

<sup>7</sup> Santos Zunzunegui, *El cine en el País Vasco*, Ph.D. thesis, 1985, pp. 52-64.

---

# Aldi mututik Gerra Zibilera

---

De l'époque du muet  
à la Guerre Civile

From the Silent Era  
to the Spanish Civil War

Orain arte, Euskal Herrian izandako zine-emanaldiei buruz jardun dugu funtsean. Denboran aurrera eginez gero, berriz, ekoizpen propioak egiteko lehen saiakerak jorratzea dagokigu, nahiz eta zinemak industria gisa artean tokiko burgesiaren interesik pizten ez zuen. Dena den, kultura borborrean zen urte haietan, Bilbon, batez ere. 1910ean euskal kulturako izenik garrantzitsuenetako batzuk biltzen zituen Bilboko Euskal Artisten Elkarteak sortu zen, eta 1917an aurrerago hizpide izango dugun pertsona bat sartu zen bertan: Nemesio Sobrevila. Urte hartan bertan *Hermes* aldizkaria sortu zen Bilbon, Santos Zunzunegiren ustez Euskal Herriko kulturaren aurrekaririk gabeko lan dinamizatzailea egin zuena.

Urtebete geroago, 1918an, Euskal Ikasketen I. Kongresua egin zen Oñatin, eta gai asko jorratu ziren han: etnografia, filologia, folklorea eta artea. Zinemak ere bere tokia izan zuen. Kongresu hartatik sortu zen Eusko Ikaskuntza eta haren bitartez zinta zinematografikoak inprimatzea proposatu zen, Euskal Herriko eskualde desberdinetako dantzak jaso, ikertu eta babesteko asmoz.<sup>8</sup> Manuel Inchaustik grabatu zituen lehen dokumental etnografiko haiek 1923tik 1928ra. Usadioak, dantzak, jolasak eta kirolak hain goiz irudikatzen jakitea da *Eusko Ikusgaya*k izeneko film laburren balioa. Hedapen urria izan zuten, Eusko Ikaskuntzak berak antolatutako proiektio pribatuetan baino ezin izan baitziren ikusi.

Enrique Santosek Bilbon 1923an *Academia Cinematográfica Hispania Films* fundatu izanak ia behalako ondorioak izan zituen, ekoizpen propioei dagokienez. Era guztietako arazoak gaindituz, ikasle talde batek zinema egiteko asmoari eutsi zion. Lehen saiakera *Un drama en Bilbao* (1923) izan zen, Alejandro Olabarriak zuzendua. Arrakasta gutxi izan zuen komertzialki, tokiko aktoreen parte-hartzea iragarri-ta publikoa erakartzen saiatu ziren arren. Film haren

<sup>8</sup> J. M. Unsain: *El cine y los vascos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1985, 87. orrialdea.

Jusqu'ici, il a été essentiellement fait référence aux projections de films ayant eu lieu au Pays Basque. En avançant dans le temps, il convient d'évoquer les premières tentatives de production de films, en dépit du fait que le cinéma, en tant qu'industrie, n'était guère parvenu à intéresser la bourgeoisie locale. Ces années furent marquées par une certaine effervescence culturelle, surtout à Bilbao. En 1910 fut créée, à Bilbao, l'Association des Artistes Basques qui rassembla certains des plus grands noms de la culture basque, rejoints en 1917 par une personnalité à laquelle nous nous intéresserons plus tard, à savoir, Nemesio Sobrevila. Au cours de cette même année, la revue *Hermes vit également le jour* à Bilbao. Selon Santos Zunzunegui, cette publication joua un rôle un rôle stimulant sans précédent dans le monde de la culture au Pays Basque.

Un an plus tard, en 1918, le 1<sup>er</sup> Congrès d'Études Basques, qui se déroula à Oñati (Gipuzkoa), fut l'occasion de nombreux débats dans des domaines aussi divers que l'ethnographie, la philologie, le folklore et l'art. Un espace fut également réservé au cinéma. En effet, la Société d'Études Basques *Eusko Ikaskuntza*, fondée à l'occasion de ce Congrès, proposa alors de faire imprimer des bobines de pellicule, sur lesquelles seraient filmées les danses des différentes régions du Pays Basque de façon à pouvoir procéder par la suite à leur étude et leur conservation.<sup>8</sup> Manuel Inchausti tourna ces tout premiers documentaires ethnographiques entre 1923 et 1928. La valeur de ces courts métrages, intitulés *Eusko Ikasgayak* (Sujets d'Études Basques), tient dans le fait d'avoir su représenter très tôt les costumes, les danses, les jeux et les sports. Leur diffusion fut limitée aux seules projections privées organisées par la Société d'Études Basques elle-même.

La création par Enrique Santos, en 1923 à Bilbao, de l'*Académie Cinématographique Hispania Films*, eut un retentissement quasi-immédiat sur la production de

Up to now, I have mainly discussed the projection of films in the Basque Country. With time, one can begin to speak about the first attempts to produce films there despite the fact that the cinema as an industry had not managed to interest the local bourgeoisie. These were years, though, marked by a certain cultural vitality, especially in Bilbao. In 1910, the Association of Basque Artists was established in Bilbao, composed of the important Basque artists of the time (and joined in 1917 by someone who will be of interest to us later, Nemesio Sobrevila). That same year, the journal *Hermes* was also founded in Bilbao. In the opinion of Santos Zunzunegui, this publication would come to play an unprecedented and key role in the culture of the Basque Country.

A year later, in 1918, the First Conference of Basque Studies was held in Oñati (Gipuzkoa), where issues of all kinds were debated: ethnography, philology, folklore and art. There was also some room set aside to discuss cinema. Specifically, *Eusko Ikaskuntza* (the Basque Studies Society) –which was created as a result of this conference– proposed recording the dances of different areas in the Basque Country on cinematographic tape so that they might later be used as a source of studying and maintaining these dances.<sup>8</sup> Manuel Inchausti was given the task of filming these primitive ethnographic documentaries between 1923 and 1928. The short films, called *Eusko Ikasgayak* (Basque topics), are valuable in that they understood at this early stage how to portray these dances, games and sports. Their release was limited in practical terms to private screenings which the Basque Studies Society itself carried out.

The founding of the Hispania Films Cinematographic Academy by Enrique Santos in Bilbao in 1923 would have almost an immediate effect on Basque film production. In spite of the varied problems that ensued, a

<sup>8</sup> J. M. Unsain, *El cine y los vascos*, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1985, p. 87.

<sup>8</sup> J. M. Unsain, *El cine y los vascos* (Donostia / San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1985), p. 87.



*Edurne, modista bilbaína* (Telesforo Gil)

hamalau minutu baino ez dira geratzen gaur egun –antza denez, arazo ekonomiko latzak izan zituen hasiera-hasieratik. Hala ere, jasota geratu den Euskal Herriko fikziozko lehen filmaz ari gara (metraje ertainekoa). *Lolita la huérfana* (1924) filmarekin bigarren saiakera bat egitea erabaki zuen Aureliano González ekoizleak eta orduko hartan zuzendaritzaren ardura ere bere gain hartu zuen. Ustez hunkiberatasunez gainezka egiten zuen melodrama horren hamar minutu besterik ez zaizkigu geratu. Estreinaldi komertzialik ere ez zuen izan.

XX. mendeko lehen herenean Euskal Herrian sozialismoak eta euskal nazionalismoak osatzen zuten dualismo politikoaren garrantzia ez dugu aipatzearen aipatu. Izan ere, euskal industria zinematografikoak, bere txikitasunak txikitasun, gatazka horren berri emango digu. Artean ernaldian zen euskal zinematik gizarteko ikusmolde biak islatu nahi izan zituen markada hartako fikziozko bi film mutu garrantzitsuenak izango zirenetan. Telesforo Gil del Espinarrren *Edurne, modista bilbaína* (1924) lanak Euskal Herri hiritar eta industrializatuko langileen mundua izan zuen aztergai, eta *El Mayorazgo de Basterretxe* (1928) obran, ostera, Mauro Azconak nahiago izan zuen baserri-giroko mundu idealizatua erakutsi. Ez bata ez bestea ez dira, ez sozialismoaren ikuspuntu ortodoxoa, ez euskal nazionalismoaren gorazarrefilma, eta ez da hori hemen aztertu beharrekoa. Aipuren asmoa zera da, film horietan ikus daitezkeen mugimenduen zantzen bitartez euskal ekoizpen xumea bere inguruneko errealtate sozialetik oso gertu zegoela frogatzea.

Telesforo Gil del Espinar posta-zerbitzuko enplegatua Bilbon bizi zen eta zinemaren munduarekiko grina zuen. Bizkaiko Unión General de Trabajadores ofizialki eratu eta urtebetera, hiriburuan gutxieneko industria bat sortzeko egin zituen ahaleginek fikziozko lehen euskal luzemetraiatzat jo izan dena izan zuen fruitu: *Edurne, modista bilbaína* (1924). Hispania Films-eko gerente Aureliano González bazkide zuela

films basques. Surmontant un certain nombre de difficultés, un groupe d'élèves montra sa détermination à faire du cinéma. La première tentative fut *Un drama en Bilbao* (Un drame à Bilbao, 1923), réalisé par Alejandro Olabarria. Le film fut un échec sur le plan commercial, malgré l'annonce qui fut faite de la participation d'acteurs locaux pour essayer d'attirer le public. À ce jour, il ne reste que quatorze minutes de ce mélodrame qui rencontra, dès le départ, d'importantes difficultés économiques. Il s'agit cependant du premier film de fiction (moyen métrage) dont on conserve le témoignage au Pays Basque. Le producteur, Aureliano González, décida de faire une deuxième tentative avec *Lolita la huérfana* (Lolita l'orpheline, 1924), dont il assura également la réalisation. De ce mélodrame apparemment débordant de sentimentalisme, ne nous restent aujourd'hui qu'une dizaine de minutes. Il ne bénéficia même pas d'une sortie commerciale.

S'il a déjà été question du fait que le Pays Basque du premier tiers du XX<sup>e</sup> siècle fut marqué par un dualisme politique reposant sur le socialisme et le nationalisme basque, c'est parce que le cinéma ne manqua pas d'y faire référence, malgré le caractère minuscule de son industrie. Encore à l'état d'embryon, le cinéma basque voulut refléter ces deux visions différentes de la société à travers les deux films de fiction muets les plus importants des années 1920. *Edurne, modista bilbaína* (Edurne, modiste de Bilbao, 1924), de Telesforo Gil del Espinar, porte un regard sur le monde ouvrier d'un Pays Basque urbain et industriel, tandis que dans *El Mayorazgo de Basterretxe* (L'héritage de Basterretxe, 1928), Mauro Azcona préfère montrer un monde paysan idéalisé. Le premier ne présente pas une vision orthodoxe du socialisme, pas plus que le second ne fait l'éloge du nationalisme basque. Là n'est d'ailleurs pas l'objet de cette étude. Il s'agit plutôt de constater que les deux films, en empruntant ces deux directions, prouvent que la modeste production basque collait au plus près de la réalité sociale qui l'environnait.

Telesforo Gil del Espinar, qui travaillait comme employé des postes à Bilbao, était passionné par le monde du

group of students were still determined to make films. The first attempt was *Un drama en Bilbao* (A drama in Bilbao, 1923), directed by Alejandro Olabarria. Its commercial success was frankly limited, although attempts were made to attract an audience by announcing the participation of local actors. Nowadays, just a little over fourteen minutes of this film have been preserved, in what appears to have been a melodrama whose financial problems are evident from the outset. That said, this was the first fictional film (a medium-length feature) that we have evidence of in the Basque Country. The producer, Aureliano González, decided to try his luck again with *Lolita la huérfana* (Lolita the orphan, 1924), and also directing the film. It was another melodrama supposedly brimming with emotiveness of which just ten minutes have been preserved. It was not even released commercially.

The reason I mentioned that, during the first third of the twentieth century, the Basque Country was marked by a political dualism made up of socialism and Basque nationalism is that film would report on this; this, despite the fact that the Basque film industry was frankly tiny. Its embryonic nature did not stop the two most significant Basque fictional silent films of the 1920s from reflecting, to some extent, these two visions of Basque society. *Edurne, modista bilbaína* (Edurne, Bilbao dressmaker, 1924) by Telesforo Gil del Espinar fixed its gaze on the working-class world of an urban industrial Basque Country; while *El Mayorazgo de Basterretxe* (The Basterretxe inheritance, 1928) by Mauro Azcona preferred the idealised Basque rural environment. The former does not exactly reflect orthodox socialist thinking, and the latter is not exactly a Basque nationalist film; that is not what I wish to demonstrate here. It is more a question of confirming that both films pointed in those two directions and that this situated the precarious Basque production industry very close to the social reality which surrounded it.

Telesforo Gil del Espinar was a postal employee living in Bilbao and a passionate advocate of the world of



*Edurne, modista bilbaína* (Telesforo Gil)

